


Antxiñako fotografixia



Oñatiko Euskal Jaixak 1902xan

Sarritan aittatu eta gogoratu dittugu 1918ko agorrian Oñatin ospatu ziran **euskal jai** entzutetsuak. **Eusko Ikaskuntza** eta **Euskaltzaindia** sortu ziran orduan gure herrixan, kongresu famau baten barruan. Baiña hamasei urte lehenago be izan ziran hemen beste era bateko euskal jai inportante batzuk: 1902ko **Euskal Festak** edota **Fiestas Euskaras** izenekuak. Orduan be jente asko inguratu zan Oñatira agorraren akaberan: 21ian baserri-ferixa eta konkurso haundixak egin ziran Bidaurretako zelaixan. Begira zenbat arlotako sarixak eratu zittuain: zezenak, idiskuak, behixak, biaiak, zaldixak nahiz bihorrak, astuak (arrak eta emiak), txarrixak (ordotsak eta ahardixak), aharixak, ardixak, antzarrak, ahatak, oillarrak eta oilluak, usuak, konejuak, eztixa eta argizarixa, mantekillia, gaztaiak, sagardauak, txakoliñak, baserriko erreminttak, baserriko makiñak eta baserriko produktuak.

Gipuzkoa osorako zabalik egozen lehiaketa horreittan hainbat oñatiarrek be hartu eben parte eta sari batzuk eskuratu be bai. Adibidez, zezenen saillian Dolaetzeko **Joxe Joakin Egañak**; astuenian Lamiategiko **Joxe Murgiondok**; ordotsenian Araotzeko **Antselmo Iñurategik**; ahardixenian **Joxe Joakin Altzelaiak** eta Olabarrietako **Manuel Idigorasek**; antzarrenian **Joxe Julian Jauregi**, **Bixente Erostege** eta **Emeterio Erostege**; ahatieneian **Emeterio Erostege** eta **Joxe Etxeberriak**; usuenian **Joxe Etxeberria** eta **Julian Arkauzek**; konejuenian **Julian Arkauz** eta **Juan Joxe Agirrek**; eztixarenian **Esteban Leanizbarrutia** eta **Pedro Ezeolazak**, Goribargoittikuak bixak; baserriko tresnetan, Torreauzoko Azpikua baserriko **Joxe Ignazio Astaburuagak**, berak asmautako gari-joteko makiña batengatik; eta baserriko produktuetan **Adrian Guridi** eta **Ebaristo Iñurategik** garixaren arluan, Olakua baserriko **Ebaristo Gaztañagak** piparrenian eta **Joxe Kruz Mendiolak** sagarrenian.

Asteburu horretan eta hurrenguan, San Migeletan, beste jai pillia egon zan Oñatin: musika-kontziertuak, dantzak, euskarazko antzerkixak, sermoiak, hitzaldixak, euskarazko poesia-lehiaketak, euskarazko irakurraldixak, bertsolarixak, pelota-partiduak, herri-jokuak. Orduan estreiñatu zan parrokixako organistia zanaren **Frantzisko Esnalen Salbe** ezaguna. **R. M. Azkuek** eta **Arturo Kanpionek** hitzaldi bana emun eben; **Manuel Umerez** Oñatiko frantziskotar ospetsuak egin eben sermoietariko bat; Santa Kataliñako **Kaittana Aranburu** izan zan euskarazko irakurketa-sarixaren irabazlia; bertsolarixak be orduko onenentxuak izan gittuan: **Txirrita**, **Pello Errota**, **Gaztelu** eta **Txintxua**; literatura saillian **Eugenio Urroz**, **Juan Ignazio Uranga**, **Kaietano S. Irure**, **Ramos Azkarate**, **Rosario Artola** eta **Jose Ignazio Garmendia** idazlien lanak sarittu zittuain; laurogei urteko **Ignazio Zabaleta** oñatiarra izan zan irrintzilaririk onena, eta abar.

Argazkixan ikusi geikienez, **aizkolarixak** be izan ziran herriko plaza nagusixan. Tamala da, baiña orduko kronikiak eztosku argiketan zeintzuk izan ziran lehixa haretan jardun euenak. Baserriarrak zirala bakarrik eta enborrak 70 eta 35 zentimetroko diametrua eukaiilla. Aizkol apustua **San Migel bixamoneko egurdixan** jokatu zan. Ezkerretara agiri dan **kioskotzar** kurioso hori Diputaziñuarena ei zan eta herri batek bestera eruaten ei euen halako jaixetarako. Hor jarritta dagozen jaunok Diputaziñoko agintarixak dittugu, hain zuzen be. Erreparau, bestalde, Santa Anako eliziak kanpae bakarra dakola eta Gaztelondo baserrixak beste itxura bat.

J. E.

Fotografixia Gereka familixiak emundakua da eta Jabier Arriaraneke beste kopixa bat eskuratu dosku. Joseba Etxeberria, Arantzazuko liburuzañiak, bibliografi samurtu dosku. Milla esker danoiri!